

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Hasieratik jarri ginen harremanetan gure produktua aurrera atera zedin. Gure kasuan, gure artekoak izan ziren: Oier, Irati, Nerea, Ainara eta Alaitz, alegia.

Taldekide bakoitzak funtsezko baliabide bat du; Oierrek sare sozialak sortuko ditu. Iratik eta Nereak, produktuaren diseinua sortuko dute eta azkenik, Ainarak eta Alaitzek poligono industrialeko denda fisikoan lana egingo dute.

*Diseinua:* Ilea garbitu eta lehortuko duen kasko bat izango da. Kaskoak, hiru banagailu izango ditu, urarena, xaboiarena eta lehorgailuarena. Gainera lau pintza edukiko ditu bezeroaren ilea ongi mugitzeko eta errazagoa izan dadin garbitzeko prozesua. Garbitzerako momentuan, soberan geratzen den ura, hodi baten bidez kanporatua izango da.

Horrez gain, banagailu hauek kaskoan egokituta dauden hiru botoien bidez funtzionatuko du. Botoi hauek, pila baten bidez joango dira , hortaz, bezeroek aldatzeko erraztasuna izango dute.

Behin disenua eginda, produktua ekoizten hasi beharko da. Honetarako, fabrikatzailearekin kontratu bat edukiko dugu; hasierako piezak beraiek sortuko dituzte eta montaketa lana gure esku geratuko da. Guk saldutako produktuaren %-ko portzentaia bat emango diegu azpikontratutako enpresari.

Fabrikatzaileak piezak ematen dizkiguten unean, enpresako pertsona bakoitzak beste rol bat hartuko du: Ainarak eta Alaitzek poligono industrialeko denda fisikoan lana egingo dute, Oierrek komertzial lanak egingo ditu, hau da, dendaz-denda joango da produktua saltzeko nahian, azkenik, Irati eta Nerea kaskoaren muntaketaz arduratuko dira.